

2006-2007 IKASTURTEA

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA



Emakumeentzako Jabekuntza Eskola emakumeen arteko topaketa, gogoeta eta prestakuntza espazio gisa finkatzen ari da. Sare proiektu hau Getxo, Ondarroa, Basauri eta Ermuko Udalek bultzatu dute, eta aurten laugarren ikasturtea hasiko du, emakumeen partaidetza politikoa eta soziala bultzatzeko asmoz.

Sarrerako mintegia

Bertan eskolaren edizio berria aurkeztuko dugu, aurreko ikasturteko balantzea egin eta, azkenik, emakumeen jabekuntzari eta partaidetza politikoa eta sozialari buruzko alderdiak ere aurkeztuko dugu.

Urriak 15 (astelehena) 19:00etatik 21:00etara Villamonteko Kultur Etxean.

IKASTAROAK

Emakumeen Nortasuna eta subjektibotasuna lerroa

Nitasun femeninoa

(50 ordu)

Tokia:	Villamonteko Kultur Etxea Astelehena, 17:00etatik 19:00etara
Iraupena:	Urriaren 22tik maiatzaren 5era
Prezioa:	15 euro
Irakaslea:	Norma Vázquez

Gaurko emakumeok gure amek bizi zituzten egoeren oso bestelakoei aurre egin behar diegu. Eskakizun berriak sinismen zaharrekin nahasten dira, eta gure tentsioak elikatzen dituzte eta zer egin, zer dagoen ondo, zer komeni zaigun... ez dakigula uzten gaituzte.

Tailer honetan gure ezinegonak ulertzeko eta geure burua hobeto ezagutzeko gako nagusiei helduko diegu. Haurtzaroko esperientziak garrantzitsuak direla baina gure etorkizuna ez dutela erabakitzen ikasiko dugu. Psikologiara hurbilduko gara berau aldaketarako tresna bihurtzeko.

Talde honek gogoeta eta ikaskuntzatik lan egingo du, ez da terapiako taldea.

Gu emakumeok: aldaketarako subjektua

(50 ordu)

- Tokia:** Villamonteko Kultur Etxea
Astelehena, 19:15etatik 21:15etara
- Iraupena:** Urriaren 22tik maiatzaren 5era
- Prezioa:** 15 euro
- Irakaslea:** Norma Vázquez
- Eskakizuna:** Aurreko ikasturteetan *Emakumeen Nortasuna eta Subjektibotasuna*, *Nitasun femeninoa* edo *Munduko emakumeen literatura* ikastaroetan parte hartu izana.

Emakumeen nortasunaren elementuetan eta emakumeek gizonekiko berdintasunean aurrera egiteko aurka egin behar diegun oraingo erronketan sakonduko dugu.

Plano kolektiboko emakumeen jabekuntzari buruzko oinarriko proposamenak ezagutuko ditugu eta berau lortzeko bidean aurkituko ditugun zailtasunak ikusiko ditugu.

Nire gorputza, ni neu

(20 ordu)

- Tokia:** Villamonteko Kultur Etxea
Asteartea, 18:00-20:00
- Iraupena:** Urriaren 16tik abenduaren 18ra arte
- Prezioa:** 5 euro
- Irakasleak:** Norma Vázquez eta Inma Merino
- Eskakizuna:** 30 urte arteko emakumeentzat

Psikologia feminista tresnatzat harturik, gazteentzako tailer honetan, genero-nortasuna eraikitzeke unean gorputzak duen paperari buruzko kontuak ikasiko ditugu. Emakumeek estetika jakin bat izan dezaten jendarteak haiengan egiten duen presioa aztertuko dugu.

Geure gorputzari entzuten ikasi gura dugu. Gorputzaz eta gorputzaren nortasunaz emakumeok ditugun eredueta bizipen osasuntsuagoak eta ez hain zapaltzaileak bizitzeko proposamenak eskaini eta garatu nahi ditugu.

Maitasuna ez da kontatu zigutena bezalakoa

(16 ordu)

Tokia: Alday Patronatoa (Karitate kalea, 1)
Azaroaren 8, 9 eta 10ean
Osteguna: 16:30etatik 20:30etara
Ostirala: 16:30etatik 20:30etara
Larunbata: 10:00etatik 14:00etara
eta 15:30etatik 19:30etara

Prezioa: 5 euro

Irakasleak: Marisa Rebolledo eta Nekane Elosu

Emakumeek eta gizonek bestelako ikaskuntzak eta esperimentziak ditugu maitasuna denaren gainean. Asko dira maitasuna lehendabiziko tokian jartzen eta berau erabateko eta baldintzarik gabeko entrega egiten ikasi duten emakumeak, bere bizi-proiektua bigarren planoan gelditzen dela. Geure buruari galdetu behar diogu maitasunagatik zer "egitekoko eta emateko" prest egongo ginatekeen.

Tailer honetan zehar maitasunezko mito ohikoenak argitu behar ditugu eta agindu arduragabeak argitara behar ditugu, maitasunaren ikusmolde berria eraikitzea eraiki daitekeela sinetsita, eta berau, hain zuzen ere, ez da kontatu zigutena edo asmatzen duguna bezalakoa.



MAITASUNA

Emakumeok eta mamuak. Gure beldurrak nola baztertu ikasiz

(16 ordu)

Tokia: Alday Patronatoa (Karitate kalea, 1)
Azaroak 29 eta 30, eta abenduaren 1ean
Osteguna: 16:30etatik 20:30etara
Ostirala: 16:30etatik 20:30etara
Larunbata: 10:00etatik 14:00etara
eta 15:30etatik 19:30etara

Prezioa: 5 euro

Irakasleak: Marisa Rebolledo eta Nekane Elosu

Emakumeok, historian zehar, ikasi dugu "onak izan behar dugula" denetarik edukitzeko, laguntza jasotzeko, salba gaitzaten. Horrela, maitatuak izatea lortuko dugu.

Baina, ona izatearen kontrakoa ez da txarra izatea, baizik eta estrategikoa izatea. Askotan maltzurra, gaiztoa etab izatearekin nahasten dugu hori. Estrategikoa izatea, ordea, proiektu bat izatean eta proiektua modu estrategikoan planeatzean datza. Eta ez dago proiektu seriorik pertsona guztien gustuko izatea helburu duenik, hori sinisteko hezi gaituzten arren.

Tailer honetan estrategia ugari diseinatuko ditugu, geldiarazten gaituzten "munstroak" identifikatzeko eta ikasitako beldurrak baztertzeko, aldi berean norbanako bilakatuz, nor bere bizitzarekin.



Komunikazio Lerroa

Jende aurrean hitz egiteko teknikak

(27 ordu)

Tokia:	Villamonteko Kultur Etxea Asteartea, 17:00etatik 19:15etara
Iraupena:	Urriaren 16tik urtarrilaren 15era
Prezioa:	5 euro
Irakaslea:	Miriam Ocio

Ikastaroan zehar gure beldurrak eta komunikazioan esku hartzen duten elementuak zein diren identifikatu behar dugu, horrela, bere ezagutza eta entrenamendutik teknikak eskura ditzaten eta jendaurrean hitz egiteko zailtasunak gainditzeko edozein esparrutan.

Halaber, hizkuntzak errealitateaz dugun ikuspegian nola eragiten dugun ere aztertuko dugu, eta hizkuntza eta komunikazioaren erabilera ez sexista egiteko proposatzen diren alternatibak ikusiko ditugu.

Feminismo lerroa

Autodefentsa

(12 ordu)

Tokia:	Fadura Institutua (Bizkerre kalea, z/g) Azaroaren 16an eta 17an Ostirala, 16:00–20:00 Larunbata, 10:00-14:00; 15,30–19,30
Prezioa:	5 euro
Irakaslea:	Maitena Monroy

Erasoak identifikatzen, eta indarkeriak (bere alderdi guztietan) dituen jatorria eta eraikuntza, eta norbanakoan eta taldean dituen ondorioak aztertzen ikasiko dugu. Eguneroko bizitzan gertatzen diren eraso-egoerak konpontzeko eta erantzuteko mekanismoak ikasiko ditugu.

Espazio bat sortu gura dugu, geure eskubide eta gaitasunetaz jabetzeko, konfiantza eta segurtasuna sustatzeko, indarkeriaren inguruko mitoak hautsiz eta emakumezkoen ahuldade fisikoari buruzko estereotipo zaharrak desmitifikatuz.

Emakumeen partaidetza politikoa

(26 ordu)

Tokia:	Villamonteko Kultur Etxea Astelehena, 18:00etatik 20:00etara, bi astean behin
Iraupena:	Urriaren 29tik maiatzaren 19ra
Prezioa:	15 euro
Irakaslea:	Dominique Saillard

Emakumeen mugimenduen eta bere aldarrikapenen historia ezagutuko dugu, gauzen orden soziala aldatu zuten eta emakumeen partaidetza politiko eta soziala egun posible izateko oinarriak ezarri zituzten protagonistak eta ideiak gogora ekarriko ditugu.

Halaber, partaidetza horretarako oraindik dauden oztopoak ere aztertuko ditugu, hala gure inguruneetatik eraikiak nola geure buruengandik eraikiak, eta neurri zuzentzaileak proposatuko ditugu. Gainera, emakumeen ahotsa udal politike-tan sartzea ahalbidetzen duten espazioak eta mekanismoak identifikatu eta erabiltzen ikasiko dugu.

Bukatzeko, gaur egungo eztabaida feministetan sakonduko dugu.

Feminismoa lehen eta orain

(8 ordu) EUSKERAZ

Tokia:	Erromoko Kultur Etxea Osteguna, 18:00-20:00
Iraupena:	Urriaren 18tik azaroaren 15era arte
Prezioa:	5 euro
Irakaslea:	Saioa Hernandez
Eskakizuna:	30 urte arteko emakumeentzat

Mugimendu feministak, sortu zenetik gaur egun arte, izan dituen diskurtsoak ezagutu nahi dituzten emakume gazteei zuzenduta dago tailer hau. Feminismoaren hiru olatuetan zehar egingo dugu ibilbidea, hiru gairen inguruan: indarkeria, politika eta sexualitatea.

Hiru gai hauei heltzeko, eztabaidatzeko zenbait testu, ikus-entzunezko materiala, musika eta talde-dinamikak erabiliko ditugu.

Elkartasuna eta trukea munduko emakumeekin lerroa

Munduko emakumeen literatura

(50 ordu)

Tokia: Villamonteko Kultur Etxea
Asteazkena, 10:00etatik 12:00etara

Iraupena: Urriaren 17tik maiatzaren 31ra

Prezioa: 15 euro

Irakaslea: Josune Muñoz


Tokia: Erromoko Kultur Etxea
Asteazkena, 19:30etatik 21:30etara

Iraupena: urriaren 17tik maiatzaren 31ra

Prezioa: 15 euro

Irakaslea: Marina Santa Coloma

Eki alde Erdiko, Asiako eta Afrikako egungo literatura eza-gutu, irakurri eta aztertu behar dugu. Dote, sexu esplotazioa, fundamentalismoak, ablazioa, oinak bendatzea, erbes-tea edo inmigrazioa bezalako haien aurrean sentitzen edo pentsatzen dutena zuzenean entzungo dugu. Elkartasun eta biziraupenerako bere estrategiak ezagutuko ditugu. Bere abestiak entzungo ditugu, bere dantza eta erritoak ikusiko ditugu eta munduko hainbat lekutako emakumeak gonbidatuko ditugu bere esperientziak eta jakituria gurekin partekatzeko.



Topaketa kontatzen

(32 ordu)

Tokia:	Erromoko Kultur Etxea Urriaren, 20tik maiatzaren 31ra Larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara, bi astean behin
Iraupena:	20 de octubre al 31 de mayo
Prezioa:	5 euro
Irakaslea:	Josune Muñoz

Literaturaren bitartez inmigrazioa eta erbestea bezalako gaien inguruko esperientziak, iritziak, irakurketak eta gogoetak trukatzeko espazioa sortuko dugu. Herrialde ezberdinetako emakumeen gaur egungo literatura irakurri eta aztertuko dugu, bidaiaren, egokitzapenaren eta mestizaia-
ren esperientziak ezagutzen lagunduko digutenak. Elkartasunerako eta bizirauteko haien estrategiak ezagutuko ditugu, batez ere krisialdietan.

Euren abestiak entzungo ditugu eta euren dantza eta erri-
tuak ezagutuko ditugu. Liburutegietan eta dokumentazio-
zentroetan bisitaldiak egingo ditugu.

Talde hau kultur arteko espazioa da. Trukaketa mesedetze-
ko helburuz, plazen %60 emakume etorkinentzat gorde da.



Informazioa:

telefonoa: 94 466 01 30 • ieizmendi@getxo.net

Aurreinskripzioa:

Aurreinskripzioa egiten duten emakume guztien artean zozketatuko diren plaza mugatuak. Aurreinskripzioa egiteko beharrezkoa izango da inprimakia betetzea Hiritarren Arretarako Bulegoetan edo udal webaren bitartez (www.getxo.net).

Partaide bakoitzak, gehienez ere, bi ikastarotarako aurreinskripzioa egingo du, eta lehentasun-ordena zehaztu beharko du, izan ere, plaza nahikoarik egon ezean, bakarra bakarrik egin ahal izango du.

Bakarrik onartuko dira Getxon erroldatuta dauden emakumeak, plaza libreak izan ezik.

EHUk aukera libreko kreditoak emango ditu ikastaroetan parte hartzeagatik .

Oinarrizko Errenta jasotzen dutenentzat ikastaro bakoitzaren prezioa 5 eurokoa izango da.

Aurreinskripzio-aldia: 2007. urteko irailaren 13tik 19ra bitartean.

Plazak irailaren 21an goizeko 10etan zozketatuko ditugu Martikoena kaleko 16.ean. Eskutitz bana igorriko dizkiegu onartutako guztiei, halaber, onartutakoen zerrendak ipiniko ditugu Erromoko eta Villamonteko Kultur Etxeetan, eta internet bidez ere begiratu ahal izango da Getxoko web orrian (www.getxo.net).

Matrikula:

Behin betiko matrikula formalizatzeko, beharrezkoa izango da onarpen gutuna aurkeztea eta HAG edo HABetan ordainketa egitea.

Matrikula-aldia: 2007. urteko urriaren 3tik 9ra bitartean.

Aurreinskripzioa eta matrikula egiteko tokia:

Hiritarren Arretarako Bulegoak,
ordutegia:

8etatik 14etara

Algorta: Juan Bautista Zabala kalea, 6
Foru kalea, 1

Andra Mari: Benturillena, 17

Erromo: Aurrezki Kutxa kalea, 3

Hiritarren Arretarako Gunea:

Ordutegia: 14etatik 20etara.
Makaletako Etorbidea, 56

Hautzaindegi zerbitzua egongo da